



INDUSTRIA, TRANTSIZIO ENERGETIKO ETA
JASANGARRITASUN SAILA
Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetza
Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren
Zuzendaritza

INDUSTRIA, TRANTSIZIO ENERGETIKOA ETA
JASANGARRITASUN SAILA
Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetza
Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren
Zuzendaritza

Hondakin arriskutsuen agenteek bete beharreko baldintzak eta betebeharrak

Hondakinen kudeatzailea den aldetik, honako hauetan xedatutako betebeharren araubidea bete beharko du: Ekonomia Zirkular Baterako Hondakinei eta Lurzoru Kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legea, Hondakinen arloko finantza-bermeei buruzko martxoaren 22ko 208/2022 Errege Dekretua, Estatuaren Lurraldearen Barruko Hondakinen Lekualdaketa arautzen duen ekainaren 2ko 553/2020 Errege Dekretua bai eta, beste araudi sektorial batzuen arabera, aplikatzekoak zaizkion preskripzio teknikoak ere.

Bereziki, honako baldintza hauek bete behar dira:

- 1- **INGURUNET** sisteman hondakin arriskutsuen agente gisa **jarduten hasi aurreko jakinarazpena** aurkeztea, esteka honetan ezarritako zehaztapenen arabera, eta beharrezkoa den informazio eta dokumentazioa aurkeztuz:

<https://www.euskadi.eus/komunikazioa/a01-hondakin-arriskutsuen-agentea/web01-a2inghon/eu/>

Jakinarazpen horretan honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- Hondakin arriskutsuen agente gisa egin nahi den jarduera deskribatzen duen memoria.
 - **15.000 EUROKO** fidantza sinatu izanaren **egiaztagiria**, hondakinen arloko finantza-bermeei buruzko martxoaren 22ko 208/2022 Errege Dekretuaren IV. eranskinean ezarritakoaren arabera.
- 2- Jardueraren jakinarazpenean hondakin arriskutsuen agente gisa adierazitakoa eta kontratuan onartutako klausulak eta baldintzak betetzea.
 - 3- Hondakin arriskutsuen agentearen jarduerak dakartzan betebeharrei erantzuteko eskatzen den fidantza mantentzea.
 - 4- Artxibo elektronikoko bat edukitzea, hurrengo datu hauek kronologikoki jasoko dituenak: hondakin arriskutsuen kopurua, izaera, jatorria, helmuga, hondakinak tratatzeko metodoa, garraibidea eta bilketaren maiztasuna.
 - 5- Artxibo kronologikoko informazioa 5 urtez gordetzea eta agintari eskudunen eskura jartzea, ikuskatzeko eta kontrolatzeko.

- 6- Urte bakoitzeko, martxoaren 1a baino lehen, aurreko urteko artxibo kronologikoan jasotako informazioaren laburpen-memoria bat bidaltzea, honako esteka honetan ezarritako txantilo-formatuaren arabera:

<https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/01215/web01-tramite/eu/>

- 7- Agintaritza eskudunei laguntza osoa ematea, azterketak eta kontrolak egiteko, informazioa biltzeko, laginak hartzeko, dokumentazioa egiaztatzeko eta beren eginkizuna betetzeko beste edozein eragiketa egin ahal izateko.
- 8- Erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztea, hondakinen agentearen jarduera amaitzen denean jakinarazpenari erregistroan baja emateko